

## **Mundakako liburutegiak itxita jarraituko du datorren hilera arte**

**Dagoeneko zabalik egon behar zen, baina egin beharreko lanak ez dituzte oraindik amaitu.**

O. Zabalondo. Mundaka

Mundakako Jose Maria Etxeita Udal liburutegiak itxita jarraituko du beste hilabetez. Liburutegiaren arduradunen esanetan, baliteke abuztuaren 4rako dena prest izatea eta liburutegia berriz zabaltzea.

Liburutegiaren informatizazio prozesuan lanean ari dira eta behin hori amaituta berrantolaketa lanak egin behar dituzte. Lan horiek liburutegiaren erabiltzaileei begira egiten ari dira. Horrela, behin lanak amaituta, erabiltzaileek behar dutena errazago aurkitu ahal izango dute.

Hala ere, liburutegiaren beheko gelan aldizkariak eta egunkariak irakurtzeko zerbitzua eskaintzen ari dira, astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:00etara.